

## BALIO PROPOSAMENA (I)

Ikusi daiteke hamar etxetik bederatzitan, poltsa ezberdin asko jartzen dituztela zaborra berezitu eta birziklatzeko, beraz egoera horiei aurre egiteko enpresak zaborrontzi ezberdin bat sortuko luke. Zaborrontzia bakarra izango litzateke baina hala ere birziklatzen jarraituko zenuke. Guztiok dakigu gaur egun ze garrantzitsua den birziklatzea eta ingurunea zaintzea, beraz ondasun honekin ez zenuke aitzakiarik izango ez birziklatzeko ez eta ingurunea zaintzeko.

Zaborrontziaren forma, kolorea eta tamaina zure esku dago, zuk aukera dezakezu nolako zaborrontzia nahi duzun. Azkenik inguruneari laguntzeaz gain, hirugarren munduan ere lagunduko zenuke, lortutako diruaren portzentaje bat hirugarren mundura bidaliko genuke.